

**Lanaren nondik norakoak:**

- Zuetako bakoitzak Izkiko 6 izaki bizidun sailkatzeko gako dikotomiko bat prestatu behar du. Taldekide bakoitzak hauetako multzo bat aukeratu beharko du:

ANFIBIOAK eta NARRASTIAK	UGAZTUNAK
<i>Ichthyosaura alpestris</i> (uhandre alpetarra)	<i>Felis silvestris</i> (basakatua)
<i>Coronella austriaca</i> (iparraldeko suge leuna)	<i>Martes martes</i> (lepahoria)
<i>Alytes obstetricans</i> (txantxikua)	<i>Glis glis</i> (muxar grisa)
<i>Rana dalmatina</i> (baso-igel jauzkaria)	<i>Lutra lutra</i> (igaraba arrunta)
<i>Vipera aspis</i> (aspis sugegorria)	<i>Myotis bechsteinii</i> (Bechstein saguzarra)
<i>Discoglossus galganoi</i> (iberiar apo pintatua)	<i>Neomys fodiens</i> (ur-satitsu hankazuria)

HEGAZTIAK	ORNOGABEAK
<i>Aquila chrysaetos</i> (arrano beltza)	<i>Lucanus cervus</i> (arkanbelea)
<i>Neophron percnopterus</i> (sai zuria)	<i>Rosalia alpina</i> (adarluzea)
<i>Gyps fulvus</i> (sai arrea)	<i>Leucorrhinia dubia</i> (muturzuri txikia)
<i>Bubo bubo</i> (hontz handia)	<i>Euphydryas aurinia</i> (uhingorria)
<i>Pyrrhocorax pyrrhocorax</i> (belatxinga mokogorria)	<i>Austropotamobius pallipes</i> (ibai-karramarroa)
<i>Dendrocoptes medius</i> (okil ertaina)	<i>Coenagrion mercuriale</i> (Merkurio orratzontzia)

- Amaitzean, zirriborroa taldekideei erakutsi, egokia eta ulergarria iruditzen zaien aztertuz. Azkenik, zirriborroa irakasleari erakutsi, lehen zuzenketa egin dezan.
- Egin beharreko zuzenketak egin ondoren, prestatu behin betiko eskema eta gorde zuen portfolio digitalean.

- Hemen dituzue zenbait pista erabil ditzakezenak:

ANFIBIOAK eta NARRASTIAK: hankarik duen ala ez, azal hezea duen (anfibioren kasua) edo ezkatatzen estalitako azal lehorra (narrastien kasua), isatsik duen ala ez eta nolakoa, gorputzaren forma eta kolorea, azal leuna edo zimurtsua, azaleko marrazkiak eta kolorea...

UGAZTUNAK: hegan egiten ote duten, adarrik ote duen eta nolakoak, letaginak agerian dituen, tamaina, muturraren luzera, buztanaren ezaugarriak, belarrien forma edo luzera, apatxik dituen ala ez...

HEGAZTIAK: Tamaina orokorra, lumajearen kolore nagusiak, mokoaren eta hanken kolorea, orban edo marrazki bereziak, mokoaren forma (kurbatua, zuzena, fina...).

ORNOGABEAK: Hegalik duen ala ez, hanka-kopurua, elitrorik duen ala ez (kakalardoak bezalako hegalek gogorak dira), oskolik duen, oskolaren forma, adar luzerik dituen, antena luzerik duen, hegalek kolorea, hegalek tamaina, hegalek itxura, gorputzaren forma...